

hondo-hondotik

Jon Sanz Landaluze eta Josu Egireun

(Hemen eta Munduan elkarteko kideak)

Posible da beste Europa bat izatea

Iaz, Oinarritzko Eskubideen Gutuna onartu zen Nizan, Europako ekonomietan malgutasun politikak ez eragozteko irizpidetzat hartuta, munduko merkatu globalizatuan lehiakorragoak izan daitezzen. Urtebete geroago, Europako Batasuneko estatuburuak eta gobernuburuak gaurtik igandea bitarte bilduko dira Laekengo errege jauregian (Belgika).

Goi-bilera horrek agenda zabala izango du: enpleguaren kalitate-hobekuntza, aukeren berdintasuna sustatzea, bazterketaren eta pobrezia-aren aurkako borroka, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta politika ekonomiko komuna bultzatzea, Europako askatasun, segurtasun eta justizia esparrua sortzea... Agenda horretan, enuntziatuek ez dute zerikusirik errealtatearekin. Izan ere, enpleguaren kalitate hobekuntzaz eztabaidatzen dutenean, azkenean, lanaren malgutasunari buruzko legeak ematen dituzte; era berean, pobrezia-aren eta gizarte bazterketaren aurka borrokatzeaz mintzatzen direnean, lan merkatua okerragotzeko gizarte bazterketa erabiltzea baino ez dute buruan; eta askatasunaz zein justiziaz ari direnean, benetako estatu polizial bat sortzeko legeak ematea da haien helburua (29an egin zuten bezala).

Goi-bileran, halaber, Belgikaren lehendakartzak Europako eraikuntzaren egungo egoeraz egindako azken adierazpenaz eztabaidatuko dute, baina haren edukia, gailurrerako egun gutxi falta arren, ezezaguna da,

nahiz eta ondorioetako batean esan Europa eraikitze prozesuak garde-nagoa izan behar duela. Mundu guztiak jakin badakielako Europako Batasunak oinarritzko arazo bat duela legitimitate demokratikoaz den bezain-batean.

Nizako Hitzarmenak duela urtebete onartu zutenetik izandako historia laburrean, Konstituzioak aginduta haren inguruan erreferenduma egin behar izan duen herri bakarrean (Irlanda), herriak argi eta garbi baztertu zuten: %34 herritar soilik joan ziren botoa ematera, eta %54k kontrako botoa eman zuten. Hala ere, Europako Batasunaren eredu antidemokratiko eta neoliberalaren gaitzespena nabarmen agertu da Ams-terdamen 1997an egin ziren protesta jendetsuetatik duela gutxi, orain bi hilabete, Ganten egin zirenak arte, Goteborgen, Miarritzen eta Nizan egin dakoak ahaztu gabe.

Kasu guztietan, ordea, Europako gobernuak ez dute batere zalantzarik izan protestak zapaltzeko beren eredu neoliberalaz ezartze-aren.

Laekengo errege jauregian bilduko dira, eta inguruak gotortu egin dituzte protestei aurre egiteko. Izan ere, dozenaka mila lagun bilduko dira hiri horretan, eta argi eta garbi salatuko dute eraikitzen ari diren Europa hori, enplegua kopuru handitan suntsitzean, lan merkatuaren malgutze gero eta handiagoan, zerbitzu publikoen (irakaskuntza, osasun, pentsio, garraio, posta eta abarren) zein natur bitartekoaren eraispen

eta pribatizazioan oinarrituta baitago. Gainera, ezarri nahi duten elikadura sistemak arriskuan jartzen ditu pertsonen bizitza eta ingurumena, eta nekazaritzako ekonomiak hondatzen ditu. Bestalde, eraikuntza prozesuan baztertuta gelditu da herritarren esku-hartze demokratikoa, eta herrien subiranotasuna ukatzen da. Halaber, egungo legegidiaren arabera, indarrean dagoen ordena neoliberalaz, transnazionalen eta finantza-kapitalaren irudi eta antzera sortua bera, zalantzan jartzera ausartzen den edonor terroristatzat jo eta 20 urterainoko kondenak ezar diezazkio-kete.

Beste gauza batzuen aurka ere protestatuko dute: EBren nazioarteko politika, Kolonbia Plannaren inguruan hartu duen konpromisoa, gatazkak konpontzeko indarraz baliatzea (Irak, Jugoslavia, Afganistan), hirugarren munduaren kanpo zorra kitatu nahi ez izatea, edo oraindik orain (urriaren 19an) Ganteko goi bileran erabaki bezala, nazioarteko finantza-espekulazio izugarria mugatzearen nazioarteko finantza-transakzioen gainean tasarik ezarri nahi ez izatea.

Laekengo goi-bileran amaituko da Belgikak EBko Lehendakartzan emandako aldia. Aznarren gobernuak hartuko du haren lekukoa, eta hila-ren 10ean Parlamentuan egindako agerraldian argi gelditu zen zein izango diren Espainiak Lehendakartzan izango dituen helburuak: «Europa gehiago», Aznarren hitzetan. Hau da, lehentasunen arabera: polizia espa-

rru zabalagoa eta askatasunen murrizketa; lan malgutasun eta mugikortasun handiagoa enplegu bete lortzeko; AEBen politika militaristarekiko mendekotasun handiagoa...; eta, bitartean, dagoeneko hainbat ahotsek eraikuntza horren defizit demokratikoaz ohartarazi dute. Garton Ash-ek dioen bezala, «Europako herriei ez zaie gustatzen ateak itxita jotzen duen orkestra batek zuzen ditzan». Badirudi Euroganbera bera ere kezkatuta dagoela gai horrekin, aurreko maiatzaren 31n (2001) «Txostena Nizako Hitzarmenaz eta EBren etorkizunaz» izenarekin onartutako dokumentu gogor batean prozesu konstituzional bat hastea-

ren alde egiten baitu, azkenean EBko Konstituzioaren onarpena lortzeko xedetan.

Baina Laekengo goi bilerak, lehenago Miarritzen, Nizan, Goteborgen edo Ganten gertatu bezala, beste ezaugarri bat ere izango du: atzo eta gaur mobilizazio bateratuak egin ziren eta egingo dira, eta argi geratuko da Europako bazter guztietan, nor bere nortasunarekin, gero eta emakume zein gizon gehiagok lan egiten dugula egia izan dadin atzoko eta gaurko mobilizazioetan erabiliko den leloa: posible da beste Europa bat izatea, gizarte justizian, genero berdintasunean, elkartasunean, naturaren errespetuan, esku-hartze demokratikoan eta herrien autodeterminazioan oinarritua.

Erredakzioan itzulia

LAEKENGO GOI-BILERA

Amaitu egingo da Belgikak EBko Lehendakartzan emandako aldia. Aznarren gobernuak hartuko du haren lekukoa

MOBILIZAZIOAK

Leloa: posible da beste Europa bat izatea, esku-hartze demokratikoan eta herrien autodeterminazioan oinarritua

Euskal Herriak Udalbiltza behar duelako

(Aurreko orrialdetik dator)

dago eta ekarpen eta alegazioez jantzi da Udalbiltzaren Barne Araudia. Orain Batzar Nagusiari dagokio behin betikoz onartzea. Joko arauak ere garden behar baitute izan, edozein aginte-gehiegikeria saihesteko eta berdintasuna bermatzeko.

2002: zaku bete erronka

Baina batez ere Miarritzen bilduko gaituena aitzina begirako bidea eta lana izango da. Xume-xume. Gure aurrekontua 1.500 bat jendeko herritxo bateko udalekoaren parekoa izango baita. Ez Foru Aldundietatik, ez Eusko Jaurlari-

ztatik ez Nafar Gobernutik ez baitugu sos bakar bat ere ikusiko... eta hainbat udaletatik ere ez.

Eta hala ere, harrokeriarik gabe baina harrotasunez esan dezakegu aspalditxotan ondoen probestutako diruak izanen direla.

Miarritzen aurkeztuko baitugu Euskal Herriaren Eskubideen Karta, egitasmo nazionala eta egitasmo europarra dena hein berean, Europako Estaturik gabeko Nazioetako hautetsien Nazioarteko Konferentzian datorren urtean ikusiko baitu argia Udalbiltzaren eskutik.

Naziotasun eskubidea praktikan ezartzeko epe erabakiorra zabalduko dugu

2002an, Naziotasun Aitormenaren ekimenari dagokion dimentsioa emanez eta lurralde osora zabalduz.

Euskal Herriko Garapen Fondoa ere urte honetan egituratuko da Udalbiltzaren eskutik. Eta bere egitekoa euskal lurraldeen arteko kohesio sozio-ekonomikoa eta kulturala laguntzea izanik, lehen begipuntua Zuberoan du ezarriko. Milioi bat euro bildu nahi dugu, urtariletik eta hurrengo Aberri Eguna bitarte Zuberoako hainbat garapen-egitasmo laguntzeko. Beraz zeu ere, hautesi izan ala ez izan, Udalbiltzako partaide izango zara ekimen honen bidez, zeure herritik mugitu ere egin gabe...auzolanen.

Eta Euskal Estatistika Zerbitzua izango denaren lehen kimua, eta Euskal Herriko Meteorologia Sarea, eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia, eta Euskal Kurrikuluma irakaskuntzan, eta Liburutegi Nazionala diseinatzen hasteko

lehen lanak... eta hainbat eta hainbat lan premia, Euskal Herriko gizarte, kultura, ekonomia, irakaskuntza...eta orohar herrigintza-eragileen esperientzia eta ausardiari esker eta Udalbiltzaren bultzadarekin egin ahal izango direnak.

Horregatik guztia-eragatik da inportantea Miarritzeko hitzordua. Eta ez horregatik bakarrik. Udalbiltzak, Euskal Herriaren ordezkari instituzionala den neurrian, egun bizi dugun gatazka egoera gogorrari aterabideak bilatzen laguntzeko konpromisoa ere bere gain hartzen du. Ia 500 urteko ukazio politikoak eragindako etengabeko gatazkari behin-betiko irtenbide demokratikoak bilatzeko Udalbiltzako udal eta hautesiok gure konpromiso argia mahai gainean ezarriko dugu, gure indar guztiak elkarriketa eta interlokuzio bideak lantzeko eskainiz, Miarritzen adieraziko dugun bezala.